

Iruña, 2018ko maiatzaren 9a

## OPORRAK ZUZENEAN ORDAINITZEA DENOI MERKEAGO ATERATZEN ZAIGU

### Hezkuntza Departamentua epaiketa kostuak ordaintzera kondenatu dute

Nafarroako Hezkuntza Departamentuak 2007-2011 itunaren ostean eta murrizketen garaian hartutako erabakiek hezkuntza komunitatearen eskubideen galera sakona ekarri zuten. Langileoi neguko oporretatik (Gabonetako oporrek) zortzi egun eta udaberriko oporretatik (Aste Santuko oporrek) lau egun kentzen hasi ziren, ekainean kobratzen zen kitatze (finikito) horretatik 12 egun kenduz eta hilabeteko soldata oso bat gutxiago kobratuz. Honetaz gain, nahiz eta hamar hilabete oso lan egin, udara kobratzeko eskubidea ere ukatzen zitzaigun.

Badira urte batzuk udaberri eta neguko opor egunen inguruko erreklamazioetan epaiek arrazoa ematen digutela eta erreklamatu zuten pertsona orori eskubidea aitortu zaie. Honen kontura, oraingo gobernua *de facto* ordaintzen ari da momentu honetan.

Baina udarako hilabetei dagokionean, nahiz eta aldeko epaiak izan, Hezkuntza Departamentuak ez ditu onartzen. Hau honela, erreklamatzeko besterik ez zaigu geratzen. Baina aldi berean, Hezkuntza Departamentua bere baliabideak ongi kudeatu beharrean, momentuz irtenbideari bizkarra eman dio eta oporrek ordaintzeak duen kostuaz gain, dirua xahutzen ari da epaitegietan.

Honen harira, STEILASEk hamahiru pertsonen oporren ordaintzea bideratu du eta auzitegiak, berriz ere, arrazoa eman digu. Horrela, Hezkuntza Departamentua kondenatu dute proportzionalki ordaintzera baita gizarte segurantza ere, eta bi hilabeteko antzinatasuna kontuan hartuz.

Baina orain arte ez bezala, hezkuntza departamentua oraingo honetan epaiketa kostuak ordaintzera kondenatua izan da eta honek aurrekari bat zabaldu du. Gobernuak ezinbestean konturatu behar du merkeago ateratzen zaiola udako oporrek zuzenean ordaintzea. Eta hori argi jaso beharko luke orain negoziatzen ari garen hezkuntzaren kalitatea hobetzeko itunak.

## **PAGAR DIRECTAMENTE LAS VACACIONES NOS SALE MÁS BARATO A TODO EL MUNDO**

### **El Departamento de Educación ha sido condenado a pagar las costas**

Las medidas tomadas en tiempos de recortes y posterior al pacto 2007-2011 por el Departamento de Educación, trajeron consigo graves pérdidas en derechos de la comunidad educativa. Al personal interino empezaron a quitarnos ocho días de las vacaciones de invierno (Navidad) y otros cuatro de vacaciones de primavera (Semana Santa). Por ello, en el finiquito que cobrábamos en junio, se nos quitaban 12 días en total, equivalente a una nómina de un mes trabajado. Además, habiendo trabajado todo el curso, se nos denegaba el derecho al cobro del verano.

Han pasado unos años desde que las sentencias nos han dado la razón respecto a las reclamaciones de vacaciones de invierno y primavera, reconociendo el derecho al cobro de las personas afectadas. A día de hoy, el actual gobierno está pagando *de facto* estas cantidades.

Pero en cuanto a los meses de verano, habiendo sentencias firmes y favorables, el Departamento de Educación no está llevando a cabo la extensión a los meses de verano. Por ello, el único camino, de momento, es el de reclamar. Al mismo tiempo, el Departamento de Educación, en lugar de gestionar con eficiencia sus recursos, por el momento ha dado la espalda a una posible solución y al coste que tiene el pago de los veranos, le tenemos que sumar el dinero que se está malgastando en los juzgados.

Por este motivo, STEILAS ha propiciado la reclamación de vacaciones de verano de trece personas, y el juzgado nos ha dado de nuevo la razón. Por ello, el Departamento de Educación ha sido condenado al pago proporcional de vacaciones, con su consiguiente alta y baja en la seguridad social, y a tener en cuenta la antigüedad de esos dos meses.

Pero a diferencia de lo ocurrido hasta ahora, el Departamento de Educación ha sido condenado a costas. El gobierno tiene que darse cuenta de que sale más barato el pago directo de los veranos y ello se debería recoger en la negociación del actual pacto para la mejora de la calidad educativa.



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba 📞 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia 📞 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa 📞 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus